

Uztapide eta Xalbadorren eskuizkribuak Lazarragarenen ondoan daude KMn

Uztapide, Ataño edo Xalbadorren eskuizkribuak Lazarragarenen edo Urkixorenen ondoan geratuko dira etorkizunerako Koldo Mitxelena kulturuneke gordelekuetan. Atzo Antonio Zavalak, Juan Migel Arregi Jesusen Lagundiko probintzialak eta Jose Juan Gonzalez Txabarri diputatu nagusiak izenpetu zuten hitzarmenaren arabera, Aldundiak katalogatu eta digitalizatu egingo du Zavalaren artxibo osoa, eta jatorrizko dokumentazioa KMn gordeko bada ere, kopia bana emango zaie Euskaltzaindiari eta Deustuko Unibertsitateari. Bien bitartean, Antonio Zavalak lanean jarraitiuko duela iragarri zuen.

DONOSTIA. Xabier Euzkitzek egin zituen aurkezpen lanak. Jose Juan Gonzalez Txabarri diputatu nagusiak eta Juan Migel Arregi Jesusen Lagundiko probintzialak egin zituzten hitzaldiak, eta bere txanda iritsi zitzaionean, «nik ez dut ezer esateko», adirazi zuen. Foru Aldundiko areto nagusia adiskidez beterik zuen, ordea. Han zeuden Manuel Lasarte, Imanol Lazkano, Jon Azpillaga, Joxe Mari Lertxundi eta Nikolas Zendoia bertsolariak; han zeuden Andres Urrutia, Jose Luis Lizundia, Ana Toledo eta Xabier Kintana euskal- tzainak; han zegoen Joakin Berasategi, urte askoan Auspoaren editore izana, han zegoen Txillardegi, han zeuden Pello Esnal, Joxe Mari Iriondo eta Mikel Atxaga, eta han zeuden beste hainbat eta hainbat miresle anonimoago.

«Nik ez dut ezer esateko», errepikatu zuen, baina lurreraino makurtu eta eskuizkribu batzuk jaso zituen mahai gainera. «Hementxe duzue 'Lengo egunak gogoan', Uztapiderena. Hau, berriz, 'Odolaren mintzoa' da, Xalbadorrena. Badaude orrialde batzuk bere emazteak idatziak. Hau, Atañoen 'Txantxangorri kantaria'. Manuel Lasarteren eskuidazki bat ere badut hemen. Uztapiderena da beste hau ere, 'Sasoia joan da gero' bertso-liburua. Atañoen 'Jesusen bizitza' da hau. Horrelako koaderno eta orrialde asko dago nire bilduma horretan. Baten batek lan ederra hartuko du», esan zuen, bere bildumako altxorrik nagusienak erakusten zituen bitartean.

Herriarena herriarentzat

Euzkitzek bizpahiru bertso kantatuak zituen, eta hitzarmenaren garrantzia agertu. «Badakit juxtu-juxtu etorri zerala/baina estimatzen dugu zure eginahala/ izenez Antonio Zavala/ta emankortasunez deitura bezala», kantatu zion, esate baterako. Gonzalez Txabarri izan zen artxiboaren edukiaz mintzatu zena. «Hainbat bertsopaper, eskuizkribu, grabazio, liburu, egunkari eta aldizkari zaharretako zati, herri literaturari buruzko erdal dokumentazioa eta abarrek osatzen dute Zavalaren artxiboa. Berrogeita hamabi urtez bildu duen altxorra da. 1956ko irailerako 50.000 bertso inguru omen zituen bilduak. Orduan beste mordoxka eder batzuen zain zegoen. Orduz geroztik bildu eta bildu jarraitu du. Zer gertatuko zatekeen Aita Zavalak bere bizitzan zehar lan guzti hau bere bizkar hartu izan balu?», esan zuen diputatu nagusiak. Dagoeneko 300 zenbakitara hurbiltzen ari den Auspoa bildumaren hasieran liburu-saltzaile moduan egin zituen ibiliak ere gogora ekarri zituen Gonzalez Txabarrik. «Aldundi honetan jasoko dugu hain maitea duzun Koldo Mitxelena kulturunean zuk ilunpetik ateratako altxorra. Hemen edukiko dugu beste zenbait altxor lagun dituela: Juan

Perez Lazarragaren eskuizkribua, Julio Urkixoren liburutegia edo Gabriel Celayaren fondoa», jarraitu zuen.

Lazarragaren eskuizkribuarekin egin zuten bezalaxe, Zavala-Auspoa bilduma ere digitalizatu eta artxibo osoa, jato- rrizko bertsopaper, liburu, txosten eta grabazioak Koldo Mitxelenan lekutuko direla iragarri zuen, eta bi kopia banatuko direla gaineratu zuen, bata Deustuko Unibertsitateari emango zaiona, eta bestea Euskaltzaindian utziko dena.

Juan Migel Arregik, azkenik, Zavalak bere ibilbidean sufritu dituen neke eta bakardadeak aipatu zituen, eta Auspoa liburutegian liburu bat falta zela esan zuen: «Bere ibilerak kontatzen dituen liburua». Esnalek eta Zendoiak prestatutako bertso batzuk denon artean kantatuz bukatu zen ekitaldia.

Bi gela bete paper ondorengo ikerlarientzat

Euskal kazetarion artean sonatuak izan dira Zavalaren «elkarrizketak», bizpahiru galderari erantzun orduko hasten baitzen ihesi. Elkarrizketa luzeagoak egiteko zoria izan dugunok ere ez dugu bere artxibo famatua ikusterik lortu. «Hurrengo batean erakutsiko dizut», esaten zuen. Atzo izenpetu zuten altxor hori Gipuzkoako Aldundiari emateko hitzarmena. Ikerlari erraldoi honen lana katalogatu egingo dute. Bien bitartean, Zavalak lanean jarraituko duela agindu zuen. -

«Bi gelatan pilaturik daukat nire bilduma»

Antonio ZAVALA Auspoa bildumaren aita

Umore onekoa da Antonio Zavala lagunartean sentitzen denean, eta lagunartean sentitzen zen nonbait atzo, eta gutxitan egin duena egin zuen ekitaldiaren bukaeran, kazetarien galderei erantzun zien.

Non daukazu pilaturik zure artxikoa?

Xabierko komentuko bi gela beterik ditut artxiboarekin. Artxiboa esaten zaio, baina ez da artxiboa, ordenatu gabe dagoelako. Ikerlariok pilatu egiten dugu karpeta eta kaxetan. Nik badakit gauza bakoitza non dagoen, baina kanpoko norbait etorriko balitz, ez luke ezer aurkituko.

Ez al dizu pena pixka bat ematen bilduma urruntzeak?

Ohituko naiz. Poliki-poliki egingo dugu garraioa. Katalogatzen arituko direnekin lan egin beharko dut hasieran argibideak emateko, baina berehalaxe ikasiko dute. -